

Arizmendarrieta, filosofo eta pentsalaria erreibindikatuz

Donostia 19 12 12

Arizmendarrietaren Lagunak Elkarte (ALE)

Jose Mari Larramendi

Parisen Filosofia eta Antropologia ikasi eta enpresa ezberdinetan lanean jardun ondoren, Mondragon Korporazio kooperatibetan hogeita hamabost urtez aritu naizena.

Arizmendarrietaren Lagunak Elkartearen (ALE) fundatzailetariko bat eta zortzi urtez presidentea izan ondoren, bere pentsamendua gaurkotu eta bereziki bere balioen unibertsoa identifikatze lanetan ari naiz gaurdaino.

Lege eta ohiturak jarraituz, eskerrik asko kongreso honetan parte hartzeko gonbitea luzatu diguzuenei.

Antropologo frustatu edo sasi filosofo baten antzera nator zuen aurrera. Nire lanbide guztia, enpresa kudeaketa munduan jardun izan naiz. Parterik nagusia, kooperatibetan.

Pentsamendu eta ikerketara begiratzeko nire leihatilatxoa, hori izan da beti, nahiz eta azken urteotan, erretiro garaian, gehiago hurbildu izan naizen, pentsamendu eta hausnarketa zereginetara.

Arizmendarrietaren irudi ezagunena

Arizmendarrieta-ren ospea, handia edo txikia, Mondragoiko proiektu sozioenpresarialari atxikia aurkitzen da.

Hala nola: liderra, fundatzaile, sustatzaile, sortzaile, suspertzaile eta antzeko deiturak dira ohizkoenak. Internetera joango bagina “Mondragoi Korporazio Kooperatiboaren fundatzaile den apaiz katoliko espainiarra” bezala aurkitu genezake. Eta modu anekdotikoan, tarteka “apaiz kooperatibo-tzat” jotzen dute.

Mondragoi Unibertsitate beraren inguruko argitalpenetan ere, bere “pentsamendu praktikoa” nabarmentzen da eta “pentsamendu ekintzailea eta akzio pentsalaria” bezala aurkezten dugu. Idealismoa, errealismoa eta beti azaldu duen pragmatikotasuna nabarmentzen da.

Pertsonen ongizatearen zerbitzura jarritako bere garapen ekonomikorako proiektua aztertzerakoan “errealismo utopikoa” adierazten du hainbatek euskarri nagusien artean.

Bere inspirazio-iturri bila hasten garenean, berehala aurkituko ditugu **Emmanuel Mounier** “filosofo sozial kristaua” **Jacques Maritain** “filosofo humanista” edo **Jacques Chevalier** “pentsalari katolikoa” Hirurak pertsonalismo korronte filosofiko barruan biltzen direnak eta bada ere “bergsonismo katolikoarekin” erlazionatzen duenik ere.

Bestalde, hor azaltzen da **Robert Owen** ere, kooperatibismoaren sortzaileztat eman ohi dena, eta bere “socialismo utópico” proposamenak, “reformismo interklasista” bidean kokatzen direnak.

Bere izena, Arizmendiarietarena, filosofiarekin lotzerakoan, 136.000 Internet-emaitez drastikoki txikiagotzen dira 3.800 erreferentzietara arte eta hor leku nagusi bat hartuko dute **Joxe Azurmendi** eta “**Gizon Kooperatiboa-k**”

Oraintsu, **Daniel Innenarity** filosofoaren izena ere agertzen da. Bereziki, Arizmendiarieta Eguna ekitaldietan parte hartu zuelako.

Guzti honekin zera azaldu nahi nizueke: Arizmendiarieta filosofo eta pentsalariaren nortasunaz ezer gutxi esaten da eta oso gutxi aintzat hartu. Harrigarria badirudi ere, ez bakarrik kanpotik aztertzen dutenen artean. Hemen etxean, ezta ere.

Arizmendiarietaren Lagunak Elkarre-ko (ALE) lehendakaria nintzelarik, Joxe Azurmendi-ri luzatu genion gonbidapena onartu zuen eta 2014ko maiatzaren 14ko Batzar Orokorraren amaieran, 12 orrialdeko txosten bat aurkeztu zigan. Berau aipatu eta aztertu nahi nuke elkarrekin.

“Bere testuinguruko Arizmendiarieta-ren pentsamendua” zuen izenburu eta Arizmendiarieta-ren pentsamenduaren funtsezko aukerak planteatzen ditu bertan. Hemen bere hitzaldi osoa:

<https://arizmendiarieta.org/es/noticias/2014/05/ponencia-de-joxe-azurmendi-en-la-asamblea-general/>

Joxe-k erreibindikatzen du Arizmendiarieta pentsalaria eta oinarritzko kontzeptuen maila teoriko filosofikoa xehatzen du zehazki: banakoa, pertsona, komunitatea, balio-jatorria.

Arizmendiarieta eta Simone Weil

Urte bete beranduago (2015, urria) "elkarrizketa birtual" bat proposatu nuen Parisen Arizmendiarieta eta Simone Weil bi filosofoen artean. Zehazki "lan filosofia" kontzeptua abiapuntu hartuz.

"Assosiation pour l'étude de la pensée de Simone Weil" zortzigarren kongresuan parte hartu zuten frantziar filosofo taldeak, suitzarrak eta kanadarrak harrapatuta geratu ziren ustekabeen. Simone Weil (1909/1943) eta Arizmendiarieta (1915/76), nahiz eta garai beretsuan jaioak izan, etzuten elkarren berririk inoiz izan eta hala ere bi pentsalari hauen arteko hurbiltasuna harrigarria da hainbat kontzeptu erabiltzerakoan.

Simone Weil-entzat lanaren zentraltasun filosofikoa garbia da. Lana "naturarekiko gizonaren jatorrizko ituna, gorputzarekiko arimarena"

Marx eta beste filosofo bakar batzuen ondotik, ulertu zuen lanaren zentraltasuna gizabanakoarentzat eta gizartearentzat.

Marxek bezala, lanaren kontzeptua filosofiaren erdi muinean jartzen baldin bazuen, aldiz, inportantzia erabakigarria ematen zion lanaren antolaketari, erramienten jabegoari bezainbat.

Lanaren estatutu filosofikoa ikusten zuen etorkizuneko desafio teoriko eta praktikoa nagusi bezela eta "emozio handiarekin" imajinatzen zuela zion berak.

Bien bizitza eta ekintzetatik haratago dirauten ekarpenak sendotzen dituzten ideia eta filosofoen arteko elkarrizketa hori, guztiz emankorra izango dela konbentzitua nago oso. Eta beraiek bizi izan zuten garaia ulertzeko ere baliagarria gerta dakigukela pentsatzen dut.

Bien pentsamendura hurbiltzen garenean, elkarrekiko galdera sakon eta interpelazio emankorrik ez dela faltako susmoa dut.

Zeregin honetan, buru berriak martxan jarriko direla eta pentsalari gazteak ez direla faltako itxaropenik ez dut galtzen.

Arizmendiarieta filosofoa

Azurmendi-ren lan hau (Arizmendiarieta-ren pentsamendua bere testuinguruan) lehenik entzun eta gero irakurtzeak asko lagundu nau Arizmendiarieta-ren pentsalari dimentsioa ezagutzeko. Mila aldiz, aspergarri bihurtu arte, entzun izan ditugun hitz haien zentzu sakona ulertzeko oso baliagarri gertatu zaizkigu Joxeren hainbat idatzi.

"Lehenik eta ororen gainetik, pertsona " baieztapenak, maila teoriko filosofikoan, ba du esanahi garrantzitsu bat.

“Zer da Arizmendiarieta-k hainbeste garrantzia ematen dion pertsona hori, eta bere garrantzia zertan errotzen da?” galdetzen du Azurmendik eta honela jarraitzen du berak “pertsona izatea zer da? Itzulinguruengatik, zeharka bakarrik hurbil gintezke erantzun bila. Ez daukagu erantzun zuzenik.

Kant-en “imperativo categorico-ak “ itsatsita daraman subjektu moralak, soilik aitortu eta errespetatu genezakeen zerbait da. Duintasuna hutsa besterik ez da.

Pertsonak sortzen duen bere intimitate bakarraren misterioa, bere kontzientziaren, da. Baina kontzientzia hau aurkitzen dugu inguratzen gaituzten banakoengan. Beste pertsonetako erlazioetan, bihurtzen gara pertsona.

Hots, identitate hori elkarrekin, elkarren artean batera konkista dezakegula. Guztion artean lortu eta osatzen dugu pertsonen komunitatea, ez banakoen komunitate bat soilik.

Joxe-ren hitzetan “Laburpen moduan: Ordena Berria sortuz pertsona bilakatzen gara, pertsonengandik, pertsonentzako” Halakoxea da, hauxe bera da, On José Maria Jaunak proposatzen duen kooperatibismoa. Hau da Arizmendiarieta-ren iraultza. Pertsonengan, beraien kontzientziaz fidatzen da, ez alderdi edo gisa bereko antolakundetan. “Gizona (pertsona) baita edozein sistema-ren oinarria. Nolakoa gizona, halakoa izango gizartea” errepikatzen zuen Arizmendiarieta berak.

Beraz, praktiko-sozial mailan, pertsona eta askatasuna, erantzukizuna, heldutasuna, solidaritatera, etab. baliokideak dira. Baina hauexek berak dira zehazki, Arizmendiarieta-k zarabiltzan bereizgarriak, kooperatibista bat deskribatzen duenean.

Banako gizarteak duen nagusitasunaren aurrean, Arizmendiarieta-k gizon lankide eta kooperatiboa azpimarratzen du beti. “Etzuen alferrik esan filosofoak (Aristoteles) bere burua besterik behar ez duen gizona, gizakion mundu honetan arraro xamarra gertatzen da; Jainkoa edo piztia bezala katalogatu behar da”

Gizona-ren joera naturala ez da basamortuaren bakardadea bilatzea, ez eta “neoliberalak” inguruko guztien aurka gerra egitea.

Azurmendi-k laguntzen digu, Arizmendiarieta-ren adierazpen askotan, ezer egiten ez duenaren antzera, huskeritan ariko balitz bezala ari denean, benetako pentsamendu filosofikoa garatzen ari dela ulertzeko.

Lana eta Heziketa

Arizmendiarieta-ren pentsamenduaren erroak XIX menderaino doaz. Emantzipazio sozialeko mugimendua, naiz K.Löwith-en “Lana eta heziketa” proposamena, gero Marx-ek kritikatu zuenaren inguruan kokatzen dira.

Horrela ikusten zuten: jornaleroarentzako bizitza osoa bihurtzen da lana eta instrukzioa aldiz, ikasien pribilegioa betea izango denen arteko dikotomia defenditzen zuten.

Baina bitxia bada ere, klase biek dituzten xedeak nolabait elkartzen dira, beraien iritziz:

Langileek heziketa burgesean sartu nahi dute eta ikasiek aldiz “intelektual langile” bezala errekonozituak izateko irrikaz dira beti.

Nahiz eta “ilustratu beranta, tardio” baten itxura har lezakeen norbaiten antzera azaldu, Arizmendiarieta-k dikotomia hau gaingaitzea planteatzen du, ikasketak eta lana, biak uztartuz.

Pedagogiari buruzko bere interesa sakona eta landua dirudi. Paulo Freire-ren “Zapalduen heziketa” liburuen azpimarra eta nota ugariak ikusarazten dutenez.

“Heziketa harekin (langilea) landu behar dela eta ez harentzat” idazten du Freire-k liburuan.

Hezitzaile eta “hezitua-ren” arteko elkarriketa bat bezala landu behar dugu heziera. Biak subjektu bilakatzen diran prozesua da, biak dira hazten.

“Orain arte ezagutzen dugun gizadiaren historia, klase-borrokaren historia da” idatzi zuen Marx-ek. Arizmendiarieta-ren proiektua, historiari iraultza ekartzeko proiektu bat da; lankidetzari zimendu berriak jartzea eta, gure historiari beraz. Pertsonen arteko lankidetzak benetakoa izan dadin, lankidetzak librea izan behar du. Horrela, pertsonak lehenik pertsona libreak izan behar dute.

Kontzientzi kooperatiboa izatea, historiaren filosofia bat izatea suposatzen du honek. Lana, ekonomia, politika, giza historia osoa, pentsamendu kooperatibistaren ikuspuntutik ikusi et landu behar dugula alegia. Lanarekin, lanean, historia egiten ari garela kontu hartu behar dugu.

Beste behin ere Arizmendiarietaren zita erabiliko dut: Kooperatibista izateak pertsona izateko modu berezi eta zehatza izan behar du; hots, munduan egon eta izateko modua, mundu eta historiaren arduradun izateko modu bat.

Bukatzear gatoz, baina azken hitzak, eskerronaren hitzak izan nahi lukete.

Gure begirune eta eskerrik sutuena Joxe Azurmendi-ri, Arizmendiarieta desberdina, ezezagun bat erakusten digulako.

Euskal tradizio politiko eta soziala, fededun, apaiz-bokazioa, europear mugimendu eta kristau sozial alderdi guzien ondotik, bere filoso sena eta praktika aurkitzen lagundu digulako.

Azken hogetahamabost urtez, “Gizon Kooperatiboa” argitaratu zuenetik, ahalegin horretan ari zaigu eta hortan dirau.

Baina gaur zuen aurren aurkezten saiatu naiz hamabi orrialdeko idazki honek duen balio pedagogiko itzela, bai bere laburrean eta baita ere bere argitasunean.

Eta bukatzeko, zera berretsi nahi dut: Joxeren laguntza alderaezin eta ordainezinekoa suertatu dela, Arizmendiarrieta-ren proposamenen dimentsio filosofikoa, Mondragon-en eguneroko bilakabide praktiko eta soziala gaindituz identifikatu eta aztertzeko. Hori pentsalari baten begirada pausatu, zorrotz, sakon eta zehatza da.

Eskerrik asko, Joxe

Jose Mari Larramendi

Zarautz, 2019 Abenduak 12